

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

1625

331/2016 EBAZPENA, apirilaren 4koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia-rena, Lourdes Ramírez Samaniego andrea Araba Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako zuzendari izendatu eta zerbitzu berezietan deklaratzekoa.

Araba Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako zuzendariaren lanpostua betetzeko deialdia aztertu da; deialdi hori Zuzendaritza Nagusi honen urtarrilaren 25eko 64/2016 Ebazpenaren bitartez egin zen, eta 2016ko otsailaren 10eko EHAAn argitaratu (27. zenbakia).

Eskabideak aurkezteko epea amaitu da, eta lanpostu horretan jarduteko hautagai bakarrak aurkeztu dituen agiriak aztertu dira, baita bere baldintza profesionalak curriculum vitaean jasotako merezimenduen arabera baloratu ere.

Aurkeztutako agiriak aztertuta, ikusi da Lourdes Ramírez Samaniego andreak deialdiko lanposturako egokia dela eta bertan jarduteko behar bezalako trebakuntza duela.

M.^a Lourdes Ramírez Samaniego andrea, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko langile finkoa eta Araba Erakunde Sanitario Integratuko erizain lanpostu funtzionalaren 1487 plazaren jabea dena, Araba Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako zuzendariaren lanpostua betetzeko hautatua izan da.

Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 27. artikuluan xedatutakoarekin bat, ofizioz deklaratu beharko da Osakidetza langile finkoak zerbitzu berezietan daudela, erakunde publiko horretako zuzendaritza-karguren bat betetzeko hautatuak badira.

Hori guztia dela-eta, Zuzendaritza Nagusi honek

EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Lourdes Ramírez Samaniego andrea Araba Erakunde Sanitario Integratuko Erizaintzako zuzendari izendatzea.

Bigarrena.– Izendapen honek 2016ko apirilaren 4tik aurrera izango ditu ondorio ekonomiko eta administratiboak.

Hirugarrena.– Lourdes Ramírez Samaniego andrea zerbitzu berezietan deklaratzekoa, izendatzen den egunetik aurrera.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko apirilaren 4a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,
JON JOSEBA ETXEBERRIA CRUZ.